

Santi Brouard

MARTIN UGALDE



GURE gerraren hiru-garren aldz heldu nintzen Donibanera bortxaz, beste lasko bezala. Goizez jaso genuen telebistaz Carrero

Blanco hil zutenaren berri, eta gogoan dut euskal sozialistetako baten patxadazko irrifarra Ganbetan pasetzen. Sasoi urdin-beltz honek markatu dit nere hau. Hemen ezagutu nuen Santi Brouard. Imanol Anasagasti lagunaren eskutik, 'sendagile' bezala. Han zen, Urdazurin, Oteiza ere. Eta esan nion ikusi berria genuela 'Peixoto' deitura zuen gazte batek, aihotzez edo, egindako eskultura, eta ikusi behar lukeela; Jorgex ohi duen bezala esan eta egin, han goaz taldeetoxa lehenbizitara, orduan taldeka bizi bait ginen heriotzen aurrean! Mundu estu eta hungikarria zen bizi genuen hura, dena hain gertu! Han sentitu nuen berriz estu euskaltasuna, Bilbon umetan gerran bezalako! Gogoan dut nola Santik esan zidan EAJK/Donibanen zuten ordezkaria agurto nahi zuela, eta arratsalde hartan bertan joan ginen biok Mikel Isasiren etxera, eta joan-etorri honetan esan nion Santiri gura-soak nituela Caracasetik heldu berriak, aita ia 80rekin nahiko makal... eta han bertan jogen etxera, begiratu zuten arretaz, eta esan zidan biharamunean etortzeko zela Bilbotik bere laguna zen sikiatra katalana, eta igoko zuela etxera. Hala etorri ziren biak. Gerotzik familiako sendagile aparta izan genuen, eta hainbeste lagunaren artean minetako bat... Hiru urte gero, 1976an, Bilboko 'Gurian' eskaini zuten, eta hainbeste lagunaren artean minetako bat... Hil zuten; hiltzaileak oraindik libre daude gaur arte, eta Tere justiziaren zain oraindik.

Leioatik Helsinkira

TXILLARDEGI



E GUNKARI honeantxe, erakuntzaz, UPVko Errektoreak «euskaraz ez dakielako» nire ahotan esan-dakotzat agertu bada ere, nik ongi dakit Goirienea jaunak euskaraz ikasi duela; eta euskaldun irakasleekiko harramnetan, hain zuzen, euskaraz mintzatu ohi dela. Egari berea. Nik ez nuen, hitz batez, hori esan.

Bere gestioaren bilduma egin zunean, al-diz, prentsa bidez jakin dugunez, erdara hutsaz egin zuten.

Eta honek beste galdera hau egitera gakar-tza: zergatik ez zuten euskaraz tutik esan?

Hain zuzen ere gertakari eta kontraesan hauek Helsinkiko gertakari famatutara eram-nante (XIX mende bukaerara).

Zeren-eta Helsinkiko Unibertsitatean (Helsingfors-koa esaten zen orduan, suedie-raz) suediera baitzen irakaspide bakarra; eta 1918an nazio-askatasuna lortuko zuten suo-mitar abertzaleek, orduantxe baitzeramaten borroka latza Unibertsitatean; suomiera Hel-sinkiko Unibertsitateko hizkuntza nagusia izan zedin.

Hots, 1885ean, suedierazko ohitura hau-tsiz, eta eskandalo izugarria sortuz, Helsin-kiko Errektore berriak suomieria hutsaz egin zuten kurtsio-zabalketaren hitzaldia. Izenaz, zoritxarrez, ez naiz mementu honetan oroi-tzen.

Snellman Errektorea (lau urte lehenago hila, eta abertzale sutsua izanik ere sekula suomieraz behar bezala mintzatzera inoiz ez heldu) gaindituz, hitz batez, eta ikasle aber-tzaleek suomieraren alde sortutako presioa-ren eraginez, Errektoreak suomiera hutsaz egin zuten hasera hitzaldi hura.

Leioan gauza bera noiz gertatuko den zain gaude.

DEIA

Hilerrri sobera

Joseba Goikoetxearen hilketak sakan gaindiezina ireki du euskal nazionalismo demokrati-koaren eta ENAMeko mundua-ren artean. Deskalifikazio politi-koak, ETAk eta bere ingurueak posizioak aurreratu egin dituzte EAJK ordezkatzan duen proiektu-aren kontrako erasoan, ekintza armaturaino eta alderdi honen kontrako mehatxu etengaberaingo aurreratu ere.

'Ekintza' hura, Euzkadiko lehen alderdi nazionalista de-mokratikoko buruzagi, afiliatu eta jarraitzaileek nekez ahaztuko dutena, beste bihurkin-itzuli bat izan zen garai batek hona ETAk eta ENAMek daramaten enfrentamendu zibileko dinamikan.

Enfrentamendu zibila, bai. Zeren eta ET/Arrentzat ez baitago «Ezker Abertzaleaz» beste Euskal Herririk. (...)

J. TXINDOKI

egin

Zalantza

(...)Arriskua benetakoa da.

Zuhurtasuna, hoztasuna eta, ba-tez ere, ausardia eta borondatea izanda soilik geldi dezake EAJK gaur egun Euskal Herriarentzat etorkizun iluna dirudiena. Bere esku dauka ez arma gehiago ematea betidanik euskal herriko sektore bateko trintzeri apantu-dionari. Bere esku dauka, ia denborarik gelditzez ez denean, norabidea aldatzea borroroak eta biktimak euskaldunak izango di-ren kale itsutik.

(...)Eta, arrakastatzat jotzen badira euskal disidenteen atxilo-ketak eta hilketak, komeniko da azpimarratzea, hori diotenean —eta ez soil-soilik implizituki— aitorzen ari direla ekintza ar-matu batek hain botere oina-riarik jotzen ditunean galtzaile direla.

JIRATZAR

LAVANGUARDIA

Lan erreforma eta gotzainak

(...) 'Langile-pastoralia Eliza osoan' dokumentua, gotzain guztiak bere egin dutena, Parla-mentuak onarutako lan errefor-



WILLEN / LIBERATION

mari buruzko araudia tinko des-kalifikatzen duen aldetik, gu-txiengutxienez partziala da eta sakonean ezezagutzaren adie-razgarri. XX. mendearan amaia-ran enplegua nola sortzen den ezagutzen ez duten adierazgarri.

Behin eta berriz esaten duen-gan zer eta lan erreforma «ba-teraezina dela pertsonaren duintasunarekin eta giza eskubideen errespetuarekin», dokumentua-ren egileak ia-ia kale itsu batean sartzen dira. Zeren eta, errespe-tuagooa al zen giza eskubideen-ekin eta pertsonen duintasunare-

kin aurreko sistema, funtsen il-do nagusiak frankismotik here-datuz zituena, eta bere zurrunta-sunarekin Europako Batasuneko eta ECDEko langabezi mailarik handiena sortu zuena? Edo, egin al liteke konparaketa absurdu hau: zer den duinago, herritarren zergikien ordainduetako langabezi saria-kontrataz ala aldi baterako edo lanaldi laburreko kontratu bat izatea? Begi-bistakoa dirudi norbait egotekotan lanik ez du-na dagoela eskasian. (...)

EDITORIALA

Joxe Austin Arrietari

Ez dut entzun 'Zeruak' izenburua daraman Atxagaren irakurketa; baina, idazlan horren argitaratzailea naizen aldetik, irakurri bai egin dut behin baino gehiagotan. Idazlan bati buruz ari garenez, esan dezadan aurrea, literaturak bere-berea duen esparrutik ez dudala alde egingo. Literaturaren ikuspegitik, beraz, J.A. Arrietak igandeko 'Broken arrow' artikuluan, 'Zeruak' idazlanaz egiten zuten jeneralizazioa izugarri rigororik gabea zen. Egia izango ba-litz testu horretan reinsertzioaren apologia egiten zela, beste hainbeste ondoriozta zezakeen Madrileko edozeinek 'Gizona bere ba-kardadean' nobela itzakia hartuta, alegia, terrorismoaren apologia egiten ari zela Atxa-ga. Ze, batetik, Carlos da personaia nagusia; jakina da, bestetik, irakurlearen baitan irado-kizun-indar handiena narradore nagusia de-la beti; eta, azkenik, personaia nagusi horren borondate garbia ETA-kideak ihesean jartzea zela. Hori horrela da, beraz: 'Apologia del terrorismo'. Eskerrak hor zehar hemengo ba-tzuk baino jende gozo-zabalagorik baden.

Kontua da literaturaren aurrean ez dugula posizionamendu bera. Niretzat literatura ona zerbait baldin bada, gauza konkretuetan du oinarria, gizabanakoaren sentimendu isile-ntan; eta, autentikotasunik izatekotan, bizitzari darion lur-usain horretatik gertu egon beharra dauka, derrigor. Baina puntu horretara iriste-ko, ikuspuntu abstraktu guztiak berezkoa du-ten erretorika onbera eta hutsailetik erantzeta ezinbesteko lana da. Ikuspuntu abstraktu ba-ten erradiografia bat ahal balitz egin, honako konstante hauek utziko lituzke agerian: bi edo hiru eslogan aski dira bizitzaren eta mundua-ren zentzu nahasiak, sentimendu lardaska-tsuak, mozorrotzeko; norberaren baitan da inozentea, makurrak besterenetan daude; be-raz, alda ditagun eta denok zoriontsu. Izan ere, mundua laua da, ez? Batzuk onak eta besteak gaiztoak, ez?

Harira itzuliz, esan, Atxagaren saioa esti-matzen badut, konkretutasun horren aldeko den neurrian estimatzen dudala. Eta urrats hori 'Gizonak bere bakardadean-etik' zetorren jada. Eta konkretutasun horren bidean mun-dura garamatza, eguneroko bizitzaz eta egu-

neroko munduaz hitz egitera. Ze, gauza bat utzi nahi nuke garbi: erretorika abstraktuak bahituta dauka geure errealtateaz zintzo hitz egiteko gaitasuna. Eta horixe da poesia onik gurean ez idaztearen arrazoi funtsezkoena-tokoa; eta oso-osoko kontatu batuek salbu, nar-ratiba bera ere... Umildadea, imperfekzioak eta makurrak ere geure teiltatun jasaten ikasten dugunean hitz egitea da. Eta hitz horiek zen-tzu bat izango dute.

IÑAKI ALDEKOA Donostia

Oharra:

Irizti ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makina: idatzitako 25 lerro baino luzeago idatzeta gutun hauetan. Idatzi duena-ren izena, telefona, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar-rra izanez, gero, zuzendaritzak bere esku izan du horretarako eskubidea.

GAIA JARRITA



Errandonea eta Eugi

Eugi eta Errandonea larunbatean Labriten txapeladunerri irabazita aurrera zaizkigu irten. Lau t'erdiko jokoen berri nola dotore dakiten, bi gazte hauek asmatu dute euren bidea egiten.

NIKOLAS ZENDOIA

Egunkaria

Batzon bidez: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: IÑAKI URJA

Gerente: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELU OTAMENDI

Zuzendariorde: LUZIZEN ETXEZAHARRETA

Publizitate: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industriaidea 01-02 Pablikoak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egiltza sozialia, Publizitate eta Administrazioa: Gudarian / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 30 02 22 / Faxa: 30 07 07

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13 esk. / (Iritzitzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabaltzu Enparantza, 3-1. ezkerreko / 48003 Bilbo / ☎ 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1 / 503 Pasa kutsaila, / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11